

Droga desagerrarazi ezin denez, harekiko bizikidetza baketsua da irtenbiderik onena

Drogak ez dira ez onak ez txarrak. Kaltegarria izan dalteko horiek gaur barik erabiltzea, eta, hori gerta ez dadin, drogak ezagutu egin behar dira. Hausnarketa horretatik abiatzen da Askagintza, zenbait he-

rritan drogen kontsumoari buruzko lkerketa egiteko. Oiarzun aitzindari da horretan, eta atzo jakinarazi zituzten gazte, heldu, guraso eta hezitzaileen ekarpenez osatutako plangintzaren emaitzak.

Drogen eraginetik libre dagoen herririk ez dago, eta alferrik da, beraz, droga desagerrarazten saiatzea. Horregatik, xede errealistago-etarantz jo dute drogaren alorrean lan egiten duten zenbait elkarte, hau da, drogekiko bizikidetzan bizitzea eta drogamenpekotasuna ahal den neurrian saihestea.

Horixe da Askagintzak gidatuta Gipuzkoako zenbait herritan egiten ari den drogen planaren xedea. Oiarzunen, Astigarragan, Orion, Usurbilen eta Lezon, esaterako, abian dute dagoeneko. Herritarren kontsumoa, kontsumitzaileen ezagarrriak, zergatiak eta ondorioak aztertu dituzte, eta behin diagnostikoa eginda, arazoari aurre egiteko konponbideak proposatu dituzte.

Oiarzun plangintza mota horretan aitzindaria da Gipuzkoan, eta atzo, hain zuzen, emaitzen berri eman zuten.

Drogen alorrean oiarzuarrek dituzten ohiturak aztertzeko, banakako elkarriketak egin dituzte hilabeteotan, gazte zein helduen artean, baita eztabaida taldeak antolatu ere. «Inguruko herriekin alderatuta, adierazle nahiko onak ateratu gugu, nahiz eta horrek ez duen esan nahi arazorik ez dagoenik», esan du Txus Congilek, Askagintzako koordinatzaileak.

Ikerketa horren beste ondorioak joera orokorrekin bat datoz. «Kontsumitzaileen adina jaisten ari da, eta gero eta gazte gehiago kontsumitzen du drogarengatik», erantsi du.



Herriko jende asko, tartean gazte ugari, agertu zen atzo Oiarzunge Kultur Etxera, planaren aurkezpenera.

Plana egiteko eta gauzatzeko, herriko eragileen arteko «sarea sortzea» ezinbestekoa izan dela irizten du Askagintzako koordinatzaileak. Izan ere, herriko irakasleek, gazteek, gurasoek eta udal ordezkariak hartu dute parte azterketan. Bestalde, diagnostikoaren emaitzak eta

drogei buruzko informazio osatuagoa eduki ditzaten, txosten bana helaraziko diete herritar guztiei.

Xabier Iragorri Oiarzunge alkatearen iritziz, drogak kontsumitzea gaur egun ez da hain besteko harriduraz eta alarmaz hartzen. «Duela hamabost urte,

heroinaren eragina aztertu genuen, eta alsadura izugarria sortu zen orduan. Orain, ordea, beste ikuspegi batetik ikusten da arazoa», azaldu du.

Egoera zelakoa den argituta, hura zelan konpondu da heldu den erronka. Oiarzunge Udalak hezkuntzaren aldeko apus-

tua egin du, eta, beraz, arlo horretan zeresana duten herriko eragile guztien lana bafu gura du. «Ikastetxeak, gurasoa... herri osoa dago arazoarekin arduratuta, eta hori baliatu nahi dugu guztien parte-hartzea lortzeko eta prebentzioa bultzatzeko», dio Kontxi Arruabarrenak, Gizarte Arazoetarako zinegotziak.

«Lehen drogen kontsumoak alsadura sortzen zuten. Gaur egun, berriz, ez da hainbesteko alarmaz hartzen»

Izan ere, dagoeneko herriko bi ikastetxeak lanean ari dira umeak txiki-txikitatik hezteko drogen inguruan.

Hezitzaileez gainera, gurasoak ere funtsezkoak dira prebentziorako, haiek baitira umeen eredia. Gurasoen eginbeharra da baloreak transmititzea, seme-alabekin komunikazioa landu baina mugak ere ezartzea, hau da, umeek txikitatik ikasi behar dute euren ekin-tzen ardura bereganatzen. •

Kristina MARTIN

OIARTZUN